**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

IRAGARPENA, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Arabako lurralde bulegoko buruarena, petrolioaren gas likidoa gordetzeko eta hodi-bidez horniketa egiteko instalazioen proiektua jendaurrean jartzeari buruzkoa. Herria: Elburgo. 2958

**OSASUN SAILA**

IRAGARPENA, farmazia bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazteko. 2959

IRAGARPENA, farmazia bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazteko. 2960

**OIARTZUNGO UDALA**

IRAGARPENA, «Lanbarrengo Parke Logistikoa» sortzeko Oiartzungo Arau Subsidiarioen aldaketarako proiektua hasieran onartzeari buruzkoa. 2960

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

ANUNCIO de la Jefa de la Oficina Territorial de Álava, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el proyecto de las instalaciones de almacenamiento y suministro de gas licuado del petróleo canalizado en la localidad de Elburgo. 2958

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

ANUNCIO por el que se hace pública la existencia de una propuesta de transmisión de Oficina de Farmacia. 2959

ANUNCIO por el que se hace pública la existencia de una propuesta de transmisión de Oficina de Farmacia. 2960

**AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del proyecto de modificación de las Normas Subsidiarias de Oiartzun para la creación del «Parque Logístico de Lanbarren». 2960

# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-785

64/1999 DEKRETUA, otsailaren 2koa, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzeko dena.

1993ko uztailaren 19an, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legea argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Legea Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 1993ko ekainaren 24ko osoko bilkuran eta argitaratu eta hogeita hamar egunen buruan jarri zen indarrean.

Zioen adierapenean, XIII. idazatian, kooperatiben eta Administrazioaren inguruan, «erabilgarritasun publikoa» kontzeptua sartu zen, Euskadiren interes orokorrari laguntzen dioten kooperatiben izaerari atxikitzeko.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-785

DECRETO 64/1999, de 2 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre procedimientos y requisitos relativos a las sociedades cooperativas de utilidad pública.

Con fecha 19 de julio de 1993, se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, aprobada en sesión plenaria del Parlamento Vasco de fecha 24 de junio de 1993, y que entró en vigor a los treinta días de su publicación.

Ya en el apartado XIII de la Exposición de Motivos de dicha Ley, se menciona la introducción, respecto a las cooperativas y la Administración, del concepto de «utilidad pública», como elemento del carácter de aquellas entidades cooperativas que contribuyan al interés general de Euskadi.

Hain zuzen ere, III. idazpuruak kooperatiben eta Administrazioaren arteko harremanak arautzen ditu eta 137.2 atalean agintzen duenez, beren jarduerekin Euskadiren interes orokorra sustatzen laguntzen duten kooperatibak herri-onurakotzat hartuko ditu Eusko Jaurlaritzak, arauz ezartzen diren prozedura, araubide eta eskakizunen arabera.

Gogorarazi beharrik ere ez dago Autonomia Erkidegoan kooperatiben elkartegintzarako ekimenak izan duen eta egun ere duen garrantzia hainbat sektore garrantzitsutan, hala nola, industrian, irakaskuntzan eta etxebizitzetan, besteak beste.

Agerikoa da, halaber, kooperatiba-sozietate bati herri onurako izaera aintzatestea oso baliabide aparta gerta dakiokeela bere bilakaerako, erakundeen laguntza eta babesa jasotzeko, eta, horrekin, mugimendu kooperatibistak bazkideei ez ezik oro har gizarteari ere eskaintzen dion zerbitzurako.

Suposizio eta aurrekari horiekin, dekretu honen xedea legeetan egindako aurreikuspena —aipatutako manuan jasotzen da hori— garatzea eta arautzea da. Autonomia erkidego honetako kooperatiba-sozietateek herri onurako izaera lortzeko eta, kasua bada, baliogabetzeko edo kentzeko bete beharreko araubidea, prozedura eta betekizunak ezarriko dira.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenari eta interesatuta dauden gainerako organo aholkulariei entzunda eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzea. Araudia dekretu honen eranskinean azaltzen da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ordezko araubidea.

Dekretu honetan administrazio prozedurari buruz aurreikusi gabe geratu diren gaietan, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

*Bigarrena.–* Arauaren garapena.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezko diren xedapenak eman ditzan.

En efecto, en el Título III, regulador de las relaciones entre las Cooperativas y la Administración, y concretamente en el art. 137.2, se establece que las entidades cooperativas que contribuyan a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus funciones serán reconocidas de utilidad pública por el Gobierno Vasco conforme al procedimiento, régimen y requisitos que se establezcan reglamentariamente.

Resulta casi innecesario recordar la importancia que la iniciativa de asociacionismo cooperativo ha tenido y sigue teniendo en el ámbito de la Comunidad Autónoma, en sectores tan trascendentes como la industria, la enseñanza y la vivienda, entre otros.

Y, es igualmente evidente que el reconocimiento de la condición de utilidad pública puede significar para una sociedad cooperativa un resorte de gran interés para sus posibilidades fácticas de desenvolvimiento, acceso a la ayuda y protección institucionales, y, con ello, para el servicio que el movimiento cooperativista presta, no sólo a sus asociados, sino también a la sociedad en general.

Bajo estos presupuestos y con estos antecedentes, el presente Decreto tiene por objeto desarrollar y reglamentar la previsión legal, contenida en el precepto antes citado, estableciendo el régimen, procedimiento y requisitos que han de seguir las Sociedades Cooperativas de esta Comunidad Autónoma para la obtención y, en su caso, revocación o pérdida de la declaración de utilidad pública.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, oídos el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi y los demás órganos consultivos interesados, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 2 de febrero de 1999,

DISPONGO:

*Artículo único.–* Se aprueba el Reglamento sobre procedimientos y requisitos relativos a las sociedades cooperativas de utilidad pública, que se adjunta como Anexo al presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Régimen supletorio.

En lo no previsto en este Decreto en cuanto al procedimiento administrativo será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.–* Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Hirugarrena.–* Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko otsailaren 2an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## ERANSKINA

## HERRI ONURAKO KOOPERATIBA-SOZIETATEEI DAGOZKIEN PROZEDUREN ETA BETEKIZUNEN ARAUDIA

### I. ATALBURUA
### ATARIKO XEDAPENA

*1. atala.–*

Beren jarduerekin Euskadiren interes orokorraren alde egiten duten kooperatiba-sozietateei herri onurako izaera aintzatesteko, baliogabetzeko edo kentzeko, araudi honetan propio ezarritako prozedurei jarraituko zaie.

### II. ATALBURUA
### HERRI ONURAKO IZAERA EMATEA

#### 1. SEKZIOA – XEDAPEN OROKORRAK.

*2. atala.–*

Beren jarduerekin Euskadiren interes orokorraren alde egiten duten kooperatiba-sozietateei herri onurako izaera aintzatetsi ahalko zaie, araudi honetan ezartzen diren betekizunen eta prozeduraren arabera.

*3. atala.–*

Aurreko atalean esandako ondorioetarako, Euskadiren interes orokorraren alde egiten dutela aintzatesteko, kooperatiba-sozietateek, funtsezko xedeen artean, alor hauek izan beharko dituzte: gizarte laguntza, gizartea, hezkuntza, kultura, zientzia eta ikerketa, kirola, osasuna, garapenerako lankidetza, ingurugiroa babestea, gizarte ekonomia sustatzea, gizarte eta hiritarren arteko bakea bultzatzea edo antzerakoak.

*4. atala.–*

Herri onurako izaera jasotzen duten kooperatiba-sozietateek eskubide hauek izango dituzte:

*Tercera.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de febrero de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## ANEXO

## REGLAMENTO SOBRE PROCEDIMIENTOS Y REQUISITOS RELATIVOS A LAS SOCIEDADES COOPERATIVAS DE UTILIDAD PÚBLICA

### CAPÍTULO I
### DISPOSICIÓN PRELIMINAR.

*Artículo 1.–*

La declaración de utilidad pública de las sociedades cooperativas que contribuyan mediante el desarrollo de sus funciones a la promoción del interés general de Euskadi, y la revocación o pérdida de las declaraciones de utilidad pública se llevarán a cabo por los procedimientos respectivos regulados en el presente Reglamento.

### CAPÍTULO II
### DECLARACIÓN DE UTILIDAD PÚBLICA.

#### SECCIÓN 1.ª– DISPOSICIONES GENERALES.

*Artículo 2.–*

Las Sociedades Cooperativas que contribuyan mediante el desarrollo de sus funciones a la promoción del interés general de Euskadi podrán ser declaradas de utilidad pública, a través del procedimiento y conforme a los requisitos que se establecen en el presente Reglamento.

*Artículo 3.–*

A los efectos previstos en el artículo anterior, se considerarán Sociedades Cooperativas que sirven al interés general de Euskadi aquéllas en cuyo objeto social sean primordiales los siguientes fines: asistencia social, cívicos, educativos, culturales, científicos y de investigación, deportivos, sanitarios, de cooperación para el desarrollo, defensa del medio ambiente, fomento de la economía social, fomento de la paz social y ciudadana, o cualesquiera otros fines de naturaleza análoga.

*Artículo 4.–*

Las Sociedades Cooperativas que obtengan la declaración de utilidad pública tendrán los siguientes derechos:

a) Agiri guztietan «herri onurakoa» aipamena erabiltzeko, erakundearen izenaren ostean.

b) Beren jardueren alorrekin zuzenean loturik dauden xedapen orokorrak egiteko eta sozietateentzat garrantzi handikoak diren programak prestatzerakoan hitza izateko, kasuan kasuko federazio nahiz konfederazioen bitartez.

c) Ekonomia, zerga eta administrazio mailan kasuan kasu ezartzen diren salbuespenak, hobariak, dirulaguntzak eta bestelako onurak izango dituzte.

2. SEKZIOA – BETEKIZUNAK.

*5. atala.–*

Herri onurako izaera jasotzeko, kooperatiba-sozietateek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Estatutuetan ezarritako xedeek araudi honen 3. atalean aipatutakoak izan beharko dute.

b) Ez dute irabazi-asmorik izango. Estatutuetan honako hauek jasotzen dituzten kooperatiba-sozietateak hartuko dira irabazi-asmorik gabekotzat:

– Ekonomia ekitaldi batean emaitza positiborik sortzen bada, onurak ez dira bazkideen artean banatuko.

– Sozietatearen kapitalean bazkideek egiten dituzten ekarpenek, derrigorrekoek nahiz borondatezkoek, ez dute diruaren legezko korritutik gorako interesik sortzerik izango, horiek eguneratzerik izango den arren.

– Artezkaritza-Kontseiluko karguak dohainik beteko dira. Hala ere, diru-konpentsazioak izango dira Kontseiluko kideek dagozkien egitekoak burutzerakoan izaten dituzten gastuetarako.

– Langile bazkideen edo, kasua bada, lan-bazkideen eta norbere konturako langileen ordainketek ez dute gainditzerik izango sektoreko soldatadun langileei aplikatzen zaien hitzarmen kolektiboak lanbideko kategoria eta jardueraren arabera ezartzen dituen ordainketen ehuneko berrogeita hamarra.

c) Herri onurako izaera lortzeko eskabidea aurkeztu zen eguna baino bi urte lehenago gutxientez, jadanik eratuta egon beharko dute, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan behar den moduan inskribatuta, funtzionamenduan, etenik gabe, eta estatutuetako helburuak gauzatzen.

d) Dela zuzenean dela zeharka, merkataritza-sozietateetan partaidetza gehiengoaren titular badira, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailean egiaztatu egin beharko dute partaidetza hori. Horren titular izateak

a) Utilizar la mención «Declarada de utilidad pública» en todos sus documentos, a continuación del nombre de la Entidad.

b) Ser oídas, a través de las Federaciones o Confederaciones correspondientes, en la elaboración de disposiciones generales relacionadas directamente con las materias de su actividad y en la elaboración de programas de trascendencia para las mismas.

c) Gozarán de las exenciones, bonificaciones, subvenciones y demás beneficios de carácter económico, fiscal y administrativo que en cada caso se acuerden.

SECCIÓN 2.ª.– REQUISITOS.

*Artículo 5.–*

Podrán ser declaradas de utilidad pública aquellas Sociedades Cooperativas en las que concurran los siguientes requisitos:

a) Que sus fines estatutarios sean los citados en el artículo 3 del presente Reglamento.

b) Que carezcan de ánimo de lucro. A estos efectos serán consideradas como Sociedades Cooperativas sin ánimo de lucro las que en sus Estatutos recojan expresamente:

– Que los resultados positivos que se produzcan en un ejercicio económico no podrán ser distribuidos entre sus socios.

– Que las aportaciones de los socios al capital social, tanto obligatorias como voluntarias, no podrán devengar un interés superior al interés legal del dinero, sin perjuicio de la posible actualización de las mismas.

– El carácter gratuito del desempeño de los cargos del Consejo Rector, sin perjuicio de las compensaciones económicas procedentes por los gastos en los que puedan incurrir los Consejeros en el desempeño de sus funciones.

– Que las retribuciones de los socios trabajadores, o, en su caso, de los socios de trabajo y de los trabajadores por cuenta ajena no podrán superar el ciento cincuenta por ciento de las retribuciones que en función de la actividad y categoría profesional, establezca el Convenio colectivo aplicable al personal asalariado del sector.

c) Que se encuentren constituidas, debidamente inscritas en el Registro de Cooperativas de Euskadi, en funcionamiento y dando cumplimiento efectivo a sus fines estatutarios, de forma ininterrumpida durante al menos dos años inmediatamente anteriores a la fecha de presentación de la solicitud de declaración de utilidad pública.

d) Que, en el caso de ser titulares, directa o indirectamente, de participaciones mayoritarias en sociedades mercantiles, acrediten ante el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, la existencia de dichas

araudi honen 3. atalean adierazitako helburuak hobeto lortzen laguntzen duela ere egiaztatu beharko dute.

*6. atala.–*

Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibek ere eskatu ahal izango dute herri onurako izaera, baldin eta araudi honen aurreko atalean ezarritako betekizunak betetzen badituzte, nola haiek hala beroien bazkideek nahiz federatuek.

3. SEKZIOA. PROZEDURA.

*7. atala.–*

Herri onurako izaera jasotzeko, kooperatiba-sozietateek eskabide bat aurkeztu beharko dute Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailean, bai zuzenean bai Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 atalean aurreikusitako bideen bitartez. Eskabide horretan datu hauek jasoko dira:

a) Eskatzailearen sozietatearen izena, identifikazio fiskalerako zenbakia eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan egindako inskripzioaren datuak.

b) Araudi honen 5. atalean ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak, arrazoiak eta egintzak.

c) Eskabidearen eguna eta lekua.

d) Artezkaritza-Kontseiluko lehendakariaren eta idazkariaren izenpea, eskabidea egiteko, eta herri onurako izaera eskatzeko Artezkaritza-Kontseiluak hartutako erabakia.

*8. atala.–*

Eskabidea behar bezala betetzen ez bada edo aurreko atalean aipatutako agiriak falta baditu, hamar eguneko epea emango zaio interesatuari akatsa zuzentzeko. Agindutakoa bete ezean, eskabidea alde batera laga dela esan nahiko duela ohartarazten zaio. Administrazioa behartuta dago eskabidearen gaineko erabaki adierazia ematera. Hala dago aginduta Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1. eta 42.1 ataletan.

*9. atala.–*

Eskabidea aurkeztuta, eta kasua bada, zuzenduta, espedientea hobeto zehazteko, ezagutzeko eta ebazteko egokitzat edo komenigarritzat joz gero, argibideak, frogak edo txosten-eskabideak egitea ebatzi ahalko du ofizioz Gizarte Ekonomiako zuzendariak.

participaciones, así como que la titularidad de las mismas coadyuva al mejor cumplimiento de los fines expresados en el artículo 3 del presente Reglamento.

*Artículo 6.–*

Podrán solicitar la declaración de utilidad pública las Cooperativas de segundo o ulterior grado que reúnan, tanto ellas como sus asociados o federados, los requisitos establecidos en el artículo anterior del presente Reglamento.

SECCIÓN 3.ª.– PROCEDIMIENTO.

*Artículo 7.–*

Para la obtención de la declaración de utilidad pública, las Sociedades Cooperativas deberán presentar su solicitud ante la Dirección de Economía Social del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, bien directamente o a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Dicha solicitud contendrá los siguientes datos:

a) Denominación social de la solicitante, así como su número de identificación fiscal y datos de inscripción en el Registro de Cooperativas de Euskadi.

b) Hechos, razones y documentación que fundamenten y acrediten el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 5 del presente Reglamento.

c) Lugar y fecha de la solicitud.

d) Firma del Presidente y Secretario del Consejo Rector, para formular la solicitud, así como acuerdo del Consejo Rector en que se adopte solicitar la declaración de utilidad pública.

*Artículo 8.–*

Si la solicitud no viniere cumplimentada en todos sus términos, o no fuere acompañada de la documentación que se menciona en el artículo anterior, se requerirá a la persona interesada para que, en el plazo de diez días, subsane la falta, con apercibimiento de que, si así no lo hiciere, se le tendrá por desistido de su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 9.–*

Presentada, y en su caso subsanada la solicitud, el Director de Economía Social acordará de oficio la realización de cuantos actos de instrucción, práctica de pruebas, o solicitud de informes se estimen necesarios o convenientes para una mejor determinación, conocimiento y resolución del expediente.

Legeak hala aginduta, txostenak eskatuko dizkie alorraren arabera eskumenak dituzten sailei. Txostenak, ez baitira lotesleak izango, hogei eguneko epean egin beharko dira.

Gizarte Ekonomiako zuzendariak jendaurrean jartzeko aldi bat ebatziko du, eskabidea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz. Horrela, interesatuta dagoen edonork espedientea aztertu ahalko du eta alegazioak jarri ahalko ditu, hogei eguneko epean.

*10. atala.–*

Espedientea izapidetuta eta erabaki-proposamena idatzi aurretik, Gizarte Ekonomiako zuzendariak interesatuak jakinaren gainean jarriko ditu, alegazioak jarri eta agiriak eta justifikatzeko agiriak aurkez ditzaten, egokitzat joz gero.

*11. atala.–*

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren agindu baten bidez emango edo ukatuko da herri onurako izaera. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Agindu hori azkena izango da administrazio bidean. Beraz, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioa arautzen duen legeak ezartzen dituen moduan eta epeetan.

*12. atala.–*

Lau hilabetekoa izango da dekretu honen arabera egindako eskabideak ebazteko epea. Epe horretan erabaki adierazirik ematen ez bada, eskabideak ezetsi egin direla esan nahiko du, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. atalean ezarritako ondorioetarako. Hori gorabehera, lege horrek ebazpen adierazia emateko obligazioa ezartzen dio Administrazioari.

III. ATALBURUA
HERRI ONURAKO KOOPERATIBAREN IZAERA BALIOGABETZEA EDO GALTZEA

*13. atala.–*

Herri onurako izaera eman zaien kooperatiba-sozietateek aipatu izaera galdu egin dezakete, baldin eta:

a) Araudi honen 5. atalean ezarritako betekizunetatik edozein bete gabe uzten badute.

b) Sozietatea desegin egiten bada.

c) Sozietateak kooperatibaren kalifikazioa galdu egiten badu.

Preceptivamente solicitará informe, con carácter no vinculante, a los Departamentos que sean competentes por razón de materia de que se trate, que deberán ser evacuados en el plazo de veinte días.

Asimismo, el Director de Economía Social acordará un período de información pública, mediante la publicación de la solicitud en el Boletín Oficial del País Vasco, a fin de que cualquier persona interesada pueda examinar el expediente y formular alegaciones, durante un plazo de veinte días.

*Artículo 10.–*

Instruido el expediente e inmediatamente antes de redactar la propuesta de Resolución, el Director de Economía Social lo pondrá de manifiesto a los interesados, a fin de que en el plazo de diez días formulen cuantas alegaciones y presenten cuantos documentos y justificaciones estimen pertinentes.

*Artículo 11.–*

La declaración de utilidad pública, o su denegación, se realizará mediante Orden del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y surtirá efectos al día siguiente al de su publicación.

Contra dicha Orden, que agota la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer recurso contencioso administrativo en la forma y plazos previstos en la Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

*Artículo 12.–*

El plazo máximo para resolver las solicitudes formuladas al amparo de este Decreto será de 4 meses. En el caso de que no recaiga resolución expresa en dicho plazo, deberán entenderse estimadas las solicitudes, a los efectos de lo establecido en el artículo 43 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación que la citada Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

CAPÍTULO III
REVOCACIÓN Y PERDIDA DE LA CONDICIÓN DE COOPERATIVA DE UTILIDAD PÚBLICA.

*Artículo 13.–*

Las Sociedades Cooperativas declaradas de utilidad pública perderán tal condición por cualquiera de las siguientes causas:

a) La pérdida o incumplimiento de cualquiera de los requisitos establecidos en el artículo 5 del presente Reglamento.

b) La disolución de la Sociedad.

c) La descalificación de dicha Sociedad como Cooperativa.

d) Beste motako bateko sozietate bihurtzen bada; hala ere, aldatu den sozietateak herri onurako izaera eskatzeko eskubidea izango du kasuan kasu aplikatzekoa den araudiaren arabera.

e) Kooperatiba-sozietate berri bat sortzen bada bai lehendik zeuden bi ego gehiago batuz, bai lehendik zeuden kooperatiba bi edo gehiago zurgatuz; hala ere, sozietate berriak herri onurako izaera eskatzeko eskubidea izango du.

f) Kooperatiba-sozietate bat edo batzuk sortzen badira lehendik zegoen bat banatzearen ondorioz; hala ere, sozietate berriak herri onurako izaera eskatzeko eskubidea izango du.

*14. atala.–*

1.– Araudi honen 13. ataleko a) idazatian aurreikusitako kasuan, herri onurako kooperatiba-sozietatearen izaera baliogabetzeko, eta ondorioz, izaera horri dagozkion eskubideak kentzeko, araudi honetako 9. ataletik 11. atalera bitartean ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Araudi honen 5. atalean ezarritako betekizunetatik edozein bete gabe uzten den edo eskubideak galtzen diren unetik aurrera izango ditu ondorioak baliogabetzeak.

2.– Atal horretako b)-tik f)-ra arteko idazatietan jasotako kasuetan, automatikoki baliogabetuko eta kenduko dira, hurrenez hurren, herri onurako kooperatiba-sozietatearen izaera eta izaera horri dagozkion eskubideak. Ez da administrazioaren deklaraziorik beharko.

d) La transformación en sociedad de otra naturaleza, sin perjuicio del derecho de la sociedad transformada a solicitar la declaración de utilidad pública con arreglo a la normativa que le sea aplicable.

e) La constitución de una nueva sociedad cooperativa por fusión de dos o más preexistentes, así como la fusión por absorción de una o más sociedades cooperativas preexistentes, sin perjuicio del derecho de la nueva sociedad a solicitar la declaración de utilidad pública.

f) La creación de una o más sociedades cooperativas por segregación de una preexistente, sin perjuicio del derecho de la segregada a solicitar la declaración de utilidad pública.

*Artículo 14.–*

1.– En el supuesto previsto en el apartado a) del artículo 13 del presente Reglamento, la revocación de la declaración de Sociedad Cooperativa de utilidad pública, y consecuentemente la pérdida de los derechos inherentes a tal declaración, se sustanciará conforme al procedimiento establecido en los artículos 9 a 11 de este Reglamento, si bien los efectos de la revocación se retrotraerán al momento en que se produjo la pérdida o incumplimiento de cualquiera de los requisitos establecidos en el artículo 5 de este Reglamento.

2.– En los supuestos contemplados en los apartados b) a f) del referido artículo, la pérdida de la condición de Sociedad Cooperativa de utilidad pública, y de los derechos inherentes a tal condición, se producirá automáticamente, sin necesidad de declaración administrativa previa.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA

### Zk-786

25/1999 ERABAKIA, urtarrilaren 14koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Enrique Moreno Alonso jaunari Galdakaoko Ospitaleko Otorrinolaringologiako zerbitzuburuaren funtzioak esleitzen dizkiona.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren ekainaren 16ko 1332/1998 Erabakiaren bidez, deialdia egin zen Osakidetzaren zerbitzu-erakundeetako zerbitzu medikoetako buruen lanpostuak betetzeko.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-786

RESOLUCIÓN 25/1999, de 14 de enero, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se asigna a D. Enrique Moreno Alonso la Jefatura de Servicio de Otorrinolaringología del Hospital de Galdakao.

Mediante Resolución 1332/1998, de 16 de junio, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocó concurso para la provisión de puestos de Jefe de Servicio Médico las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.